



JON ENBETA

EUSEBIO ERKIAGA

BESOAK ZABALIK

BESOAK ZABALIK

Kosnoaga jagole izanik
horra Lumoko lurretan Gernika,
eta hemen Aretxa
bakearen aulki nagusia
haize garbiko muinoan.
Herriaren ikur berezia,
askatasun eguzkiaren zale,
beti baikor, inoiz be ez etsia.

Gizaldietan zehar
bulartsu eta nasai,
harrokeririk bage
gizon jareien erakutsia.

Godoen erasoak jasan antzinetan
eta lautada nabarrekoenak.
Aretxak zutunik zirauan;
Corozikatiko ibaiaren ura
bare ta nare lauan.

Arerioa goietako hodei artetik
heldu izan zanean
—asmorik makurren az kolkoa—
arerioaren kide ta laguña
barriro be, godoa.

Ez daki inork hegazkinen
siratsa eta patua;
uriaren goialdea bego iraunean,
Aretx inguruko auzunea;
beste enparaua
triskantzaz hondatua.

Hori ete zan
misteriozko agindua?

Etxeak hausi, erre;
hil jente gaixoa.
Ezin jakin hegazkinetakoan
hausiabtazako mezua.

Eta hurrengo ekinaldia
bai biohotz erdiragarri:
harik lasterrean
ezereztua Coventry,
ta are godoen eskutika.

Indarra ete da
bakearen hazia?
Heriotzea berezkoa izanik
zetarako aurreratze gorria?

Munduak, oster, jadin dau
gudazaleek birrindu ebela
Bizkaian, Gernika uria;
saminaren haundiz
Coventry-ren abisaria.

Emon eta zabaldu
—bertsolariak oihu—.
Baina lehenetan eta gero
gizonak indarra
dabil maitero.


Askatasunaren sehaska
beroa izan dan Gernika
askatasun ikurra izan dadin,
euskaldunok egin ahalegin
munduko herriei deika.

GERNIKAREN IRATITIK

Eusebio Erkiaga (1987)



Askatasunaren sehaska
beroa izan dan Gernika
askatasun ikurra izan dadin,
euskaldunok egin ahalegin
munduko herriei deika.



GERNIKA 30 (N. BASTERRETXEA)

JOXE ERZIBENGOA OTAEGI

GERNIKARI... IRATITIK

GERNIKARI... IRATITIK

1. Gure Herriak ifarreko mugetan
duen zetaka beltz eta ilunean,
Iratiko Oihanean, belarrez
eraikitako kabi borobilduetan,
xorikumeen oihu kilikagarriak
hedatu ziren goialdeetara, eta
gailurretarat joanak ziren arrano,
putre, sai, bele, belazar, uso, mika,
oskilaso eta hegazti hegalaria guztiak...
hegaldaketa lasterrean jin dira
kumeen zaurien iturrietarat,
edaten ematera, babestera, begiratzera...
oihanean gauza bakoitzak duen
oreka armoniotsua ezartzera.
Orduan, Okabe, Eteneta, Urkulu...
mendien erpinetako erreka, erreka
eta urjauziak... besarkada luze bezain
sakonean elkartu eta estutu ziren
Irabaiako urmalean, hamaika zubipeko
uretan umilduak, Iratiko Oihanean...

2. Ortzearen haunditasunean entzun zen amorru biziaren oihartzun ostotsarekin xorikumeen mahuma, kinka eta kezka bipildu ziren... bakar-bakarrik eta izuaren izuz hautsi-mahutsiak bete ezinikan aurkitu zirenean, Iratiko Oihanean... Amets gaizto eta okerren zurrumurruak baieztatuz eta ziurtatuz joan ziren Euskal Herriko hiri sagaratuan... jende kanpotiar eta arrotzen maltzurkeriak, kalkulatu eta iragarriak, izutu eta ikaratu egin zituen lotan zeuden xorikume baketsu eta eztitsuak... belaze eta belardi umel, orlegi eta hostotsuan, Iratiko Oihanean...

3. Amets eta dunbots beldurgarri eta nardagarriak egiazko burni astun eta erahileak bilakatu eta higuatu ziren hiri sagaratuaren enparantza berriak dituen zuhaitz zahar, gazte, more eta berdeen artean, sarraskia, txikizioa, triskantza... saldu zuten, madarikazio eta suntsidura munduaren aintzinean azaldu eta agertu zirenean... Malagako pintore ospetsuak inmortalizaturik. Errealitate iragarriaren ispilu lotsagabea... hegazkin beltz eta oker... zomorro gosetiarren desio gehiegiak... hedatuz eta zabalduz joan ziren Errenteriko auzora joateko dagoen zubitxo arruntetik korrika, lasterka eta izuturik, populuak hanka egin nahi zuenean, ezkutuka eta gordean, Iratiko Oihanean...

4. Garraisiak, negarrak, lantu eta hilkanpaiak... zoramenaren halabeharrezko giroa kaleetan barna, karrika estu, etxarte astinduak, odolez tindatuak, zipristinduak... zakurren pausaleku eta janari higuatuak. Bitartean, hieroglifiko ironikoa, zero grisaren gerusan Heinkel burrunbalarien helize zemaitu eta mendekatzaileak jira-biraka, jolasean, Iratiko Oihanean... ametzezko lora horisken artean, triskantzak sorturiko ifernu gorri eta berdean pausatuz zihoazen herio-zama zeramatzen xori aluak. Ordoki eta lautadetan ke gero eta larriagoaren artean itotzen joan ziren mitxigu ikaratuaren oihuak, herri sofritu eta nahigabetuaren lantuak, herria muxinka hasi zenean, Iratiko Oihanean...


5. Azkenik! Joan ziren finean elizako horma sendoetan entzun ziren haize-boladen kolpe krudelak... Basondoko kobetan estali eta ezkutatu ziren gorputz eta ilusio jatorrak; mahumaz, kinkaz eta kezka aztoratu zirenak bideetara irten ziren, argi izpien errainu esperantzarriak etsitu gabe eutsi ziotenen adimenera agertu zirenean, Iratiko Oihanean... askatasuna biziki maite zuen herri kolpatu eta deseginaren altzora iritsi zen, magale eta sabeletan somatzen zuten taupada bero bezain kixkalgarrietara iritsi zen askatasuna, ixurki berri eta iraunkorraren iraultza... arbaso eta aintzinakoen izpiritu berbera... hartzera irten ziren, arratsaldeko seiretan ekiaren errainu epel eta ordurarte enoratuak berrargitaratu zirenean, egoera trumoisua iragan zenean, Iratiko Oihanean...

6. Alferrik! Ez zituzten indar sutsu eta
kementsuak harrien tarteko zirrikitueta
hilobiratu, ezin izan zien lur eman Herriak
gogor eta gotor aukeratu zituen nortasun-arauei...
helduak, gazteak, umeak eta haurrak
bidearen erdigunean topo egitera iritsi ziren
kantuz eta kantuz zeru grisa beterikan.
Mundakako itsasadarretik barnekalderantz
itsasoko ur gazi eta zaratatsuak zetozen,
pulliki-pulliki, fermu, tinko... osertzeko
gorritasuna ur mailakatueta isladatuz,
oraindik ere harri eta zur zegoen herriari
fidagarritasuna, iguripena eta itxaropena emanaz...
Orduan, Gernikako zuhaitzaren iraunkortasunaren magalean
errealitatea biziarazteko hitzarmena
hartu zen, aitaren askatasun etxea ber-eraikitzen
hasiko zirela, apirilaren hogeitaseian...
1937garrenean, Iratiko Oihanean...

Joxe Erzibengoa Otaegi

JOSE ESTORNES LASA
GERNIKAKO...

GERNIKARI NAPARTAR GUDARI BATEK



GERNIKA 30 (N. BASTERRETXEA)

GUDARI LINTAKO ZARAKIN
BETIKO ZAINDARIA.

ARITZ PEAN DIPUTADOAK
BEREN ATZEAN ERRIA,
GENTEAREN BIGOTZEAN
ASKATARZUNA.

Ilata liru, eta liru
Gernikako Antza!
(Berria)



JOSE ESTORNES LASA

GERNIKAKO...

GERNIKARI NAPARTAR GUDARI BATEK

José Estornés Lasa
Gudari Komandanteak

Aragoiko mugatik, Erronkaritik, kanko uskalkiaz, Gernikara kantari xitan naz, bonbaegozketako egunetik oraino menderdi bat igari denean.

Ene mazte gernikar da eta aren iria maite dud ere.

Gernikan egon nintzen gudari eta Lenengo Jaurlaritza eratu zenean, Lendakariaren aurretik ene gudari Kompañiareki, armak aurkezten igari gintzen. Egun eder kartan, gore Erriarentako argiz beterik, bigotzak boztu zren eta Aberriaren Askatarzuna laster xinen daitekela ustian, gore fede abertzale indartu zen.

BIZKAIKO BIOTZEAN
GERNIKAKO ARITZA,
GORE LIBERTADEAREN
BETIKO ZAINDARIA.

ARITZ PEAN DIPUTADOAK
BEREN ATZEAN ERRIA,
GENTEAREN BIGOTZEAN
ASKATARZUNA.

¡Ezta ilen, ezta ilen
Gernikako Aritza!
(Berriz)

* * *

Uskaldunok Uskalerria eztigu ñoreari gentu, ezta ere eroşi,
beti gore Etsi eta Aberri izan da; keben bizitan gra eta keben
egonen gra per sekula sekulorum.

Erromako lejjioneak gore iriaren aurkian ageri bino lein,
uskaldunak Uskalerrian berrogei mila urte bait gintion. Koriek
adexkide izan zrela omen da ta azkenean Istoriaren usinek
eromatarrak Lurreko kaxaletik betirako erman ztein.

Gero gerokoak eta betiko leloa.

ISTORIAN USKALDUNAK
BETI ETSAYEN ARTEAN,
IPARRETIK KARLO MAGNO
GODOEN ERREGEA.

ORREAGAN GALDU ZION
BERE GLORIA GUZUA,
DON RODRIGO BISIGODO
GUADALETEN ALTEAN.

¡Ezta ilen, ezta ilen,
Gernikako Aritza.
(berriz).

Morutarrak xin zren eta Bisigodo Imperioa deuseztu ezke-
ro, bertzek bikala, gore erria zapaldu nay zein eta uskaldunek,
armak artu ztein gore lurra zaintako.

ORDIAN MURUTARRAK
USKALDUNEN AURKIAN,
ZORZIREUN URTE LUZEZ
GORE KONTRA GUDETAN.

AZKEN GUDAN DANOK XUNTO
ZINTEN ZREN GORE ETSYAK,
FRANKOREKI JENERALA
EUKADI DEUSEZTRA.

¡Ezta ilen, ezta ilen,
Gernikako Aritza!
(berriz)

* * *

Egun beltz batean, alemanek eta españarrek guda akabatu
asmatu zein, lotsa izugarri gore bigotzetan sarturik, eta kortara-
ko Libertadearen Urian, guda orokorra sayatu zein: lur gainean
ekusten zen guzia deuseztu, xeatu, txirimikatu, erraustu eta
errerrik.

Eta bizidunak, gudari, emazte, aur. gazte eta zar anitz
odolketa andi batian il ztein, Uriko karriketan, eta unguruko
bidetan.

Kori edozoin errian egin daiteke baya koriek keben egitea
yago nay zein. Gernika ez da berze erriak bikala uskaldunen
artean. Gernikak badu Libertadearen Ikur Bat Munduko guzian
onki famatruk, Biltzar-Lege egiteko lekian, Aritz Zarra.

Kartan bonbak egoztia, Libertadeari zartako bat emoin bika-
la zen eta baita ere uskaldunen eta, bereziki, Bizkaiko Ooreari.

Gu lotsatu, ikaratu? Ez baya anitz ankartruk bay eta guda
xarraiteko zin egin ginion.

APRILEKO OGEY TA SEIAN
MERKATU EGUN BATEAN
SU TA AUTSIBONBAK
ASTEN ZTION EGOTZTAN.

ALEMANIKO BONBAK
ETA ZARAGOZAKOAK
URI GUZUA ZATITU
ETXEAK TA GENTEA.

iEzta ilen, ezta ilen
Gernikako Aritza.
(berriz)

* * *

Arratsialte apal kartan, Bilbotik Gernikara eltu gintzenean, izugarrizko ekusgay gore begietan ageri zen. Etseak lurrean, San Juan Eliza ere, arri pillla batean. Aritza bere tegian.

Konde Aranaren etsea errerik, lorategian subonba anitz ekusten zren, batzuek Alemanian egiñik eta berze banek Espanian. En bonbako barnean Talleres Carde y Escoriaza, Zaragoza, leitan zen. Ene lagunak, Mendizabal, José ere, bonba koriek eskietan ekun ztion eta bizi gra oray Mundiari erraiteko.

Gore karrikan, Hilarion Arbulu'aren etsera xoaiteko, berreun eta berrogey kiloko torpedo baten amar metroko zilotik igari bear ginion; gore etsea lurreratruk zegon. Nun familikoak?

Eguneko goixean, Gorbeako frentetik "Lenago II" eta "Zergaitik Ez" batalloyetako gudariak Gernikara, xasi izan zren bizpor egun lasaytako.

Saseta Batalloyko Amunariz donostiar Capitana, bere Compañiareki Gernikan zegon ere eta korieki Joseba Elósegi Tenientea.

Eusko Indarraren gudari zauritruak Gernika Gaxotegian zeuden.

Asteleneko merkatoan gente anitx biltu zen erosi eta saltako bere oiturako gaizak.

Bonbak eta metrallako izugarrizko zapar gorri bat koyen gainean erori zen.

Kan agitu zena ekusteak bigotza erdiratan zaitan.

Gernikan zeuden gudari guzuek, zauritruk eta illak billatan ebiltan zren Gaxotegira ermateko, gay nexargarri guzuan.

Bestaltetik, kañoyak ere erkin bar ginition Erreteriko Zubitik, eta ezinez, eta ezinez, zubipetik, ibaxetik egin zen, guda xarraiteko.

ASKI DA.

Bay, aski da. Utz alte batra nexarrak. Oray gunean eztigu etsay armatruk aurkian. Oraiko armak, gore artean, asmoak eta borontatea izan bear dra.

Xinkizunean zer egin bear digu erabagitea gore lein lana da.

Lan andia da. Lein ispirituak lasaytu, baketu eta indartu: berze milla urtez keben egoten grela, zin bear digu. Uskara gorde ta zabalten dugula, zin bear digu.


Gore antziñekoen libertadeak gore artean irauntea, bear bearretakoa da guziak libre izateko: Lotsarik bage, goserik gabe era inorantziarik bage bizitako, buruturik, erri ezxakiñak erri xakintsuen petxarrak izaten drela. Ezta libertaderik lotsa, gose eta inorantzien pean.

Gernikako inportantzi andienetako gaiza Aritza da.

Gernika aski du koneki. Ezdu bear yagorik, berze gaiza berri bat aren altean exartan bada, Aritza ulumpean, bigarnen mallan egon laiteke eta aren Oorea alkeritruk.

Gora bigotza! Boztu Uskaldunak! Xarraitu bizirik!

EMOIN TA ZABALTU ASKATARZUN FRUTUA!



GERNIKA 30 (N. BASTERRETXEA)

YON ETXAIDE ITHARTEK

GERNIKA SUTAN

GERNIKA SUTAN

Argitaratu gabe dagoen "Ez dira, ez, sartuko..." elaberritik hartutako pasarte bat Gernikako bonbardaketari buruz.

*Fedea aitzaki eta
Gerra nai auzoai?
Jaungoikoak inundik
Ez du gerrarik nai.*

Manuel Lekuona apez jaunak
(Santa Brigidaren kantak, "Idazlan guztiak", 9 Tomua,
248 hor. ald.).

(1) Atzekaldeko (=retaguardia).

Argi ta garbi hitz egin zuen Mola gudalburu errebelak, Bizkaiko erasoaldiari ekin zionean, hots, errendi zitezela edo Bizkai guzia apurtuko zuela. Honela zioen, egazkinetatik bota zituen "oktabillak", beldurraren-beldurrez ematen egin zezaten: "He decidido terminar rápidamente la guerra en el Norte. Los que no sean culpables de asesinatos y rindan sus armas verán sus vidas y propiedades respetadas. Pero si la sumisión no es inmediata, arrasaré toda Vizcaya, comenzando por las industrias de guerra". Baina, gure gudariak halaz ere ez ziren errenditu. Molak ez zituen engainatu eta gerlari jarraitu zioten "euskaldun gudari bat zutik zegoen artean". Haren gudaloste hankapera-tzaileak Bilbo hartu zuen, baina Molak ez zuen ikusi, egazkin istripu batez hil baitzen 1937-ko Ekainaren 3-an, Gasteiztik Burgosera zihoala, Brújula izeneko mendietan (1). Egazkinean

(1) George L. Steer-ek Burgostik Salamancara zihoala, dio, Alcocero izeneko herrian. Guk, Martínez Banderi jarraitu diogu, hobeki informatua dagoelakoan.

zihoazen bost pertsonak hilak gelditu ziren. Bilbo, Ekainaren 19-an jausi zen. Manuel Lekuona apez jaunak, poesia hunkigarri (2) bat egin zuen Molaren azkenari buruz, "Bizkayaren areriyua" deritzana. Hona hemen hiru ahapaldi:

*Areriyu bat dauka Bizkayak
Triskantza gura leukena;
Otso goseti arkuma-artian:
Mola dan bere izena.*

*—“Neuk apurtukot Bizkai guztiya,
Mola dodan lez izena”...
—“Apurtuik; bañan ur dok eguna
Eu apurtuko azena”...*

*Gorbeya, Anboto, Bizkaiko mendiyetan
Gaur entzun dogu lekayua:
“Gasteiz’tikan Burgos’a (1)
Galdu dala, galdu
Bizkayaren areriyua” (2).*

(2) Emotivo, conmovedor.

(1) Ikus daitekeenez, D. Manuel Lekuona ere Martínez Banderekin bat dator, Mola Gasteiztik Burgosera joaten hil zela. Beraz, badirudi Steer oker dagoela.

(2) Ikus: “Bizkaya’re areriyua”, Idazlan guztiak, 10, Naasi antzean, 251 p.

Baina, sobera aitzinatu gara gertakizunetan. Oraindikan Durangon gabiltza. Jorrailak 25, Pello-Mari eta Mikel bere saillean elkartu ziren biharamona. “Saseta”ko Plana-Nagusiarekin ez dago kontakturik eta ez dira jabetu Plazaola komandantea eta bere ingurukoak presoneru jausi direla. Joseba Salegi, bere sail urritua bildu bezain laster, erabaki bat hartu beharrean dago. Aramaioko ibar zoragarria eta Elorrio, jauntasuna darion herri bikaina, erori dira, bai eta Berriz-Olakueta ere, Araban eta Bizkaian etsaiak menderatu dituen lehendabiziko herriak, alegia. Markiña eta beronen inguruko herri asko erortzeaz daude. Hala-ber, Eibar, Ermua eta Mallabia. Guztiok baino lehenago, berriz, hartu zituzten —Jorrailaren 5-etik 7-ra—, Olaeta (Araban) eta Otsandio, Ubidea, Barazar eta Urkiola Bizkaian. Hamabostean, borroka ikaragarrien ondoren, Saibi mendia hartu zuen García Valiño koronel errebelak Nafarroako I-go. Brigadarekin. Beraz, Durango gainera mehatxua Urkiolatik eta Elorriotik zetorren.

Guztihau dela-ta, Aramotz mendikatean kokatzen ari ziren saildiak sendoestea erabaki zuen Salegik, Arratia ibarra eta Zornotza-Amorebieta defendatzeko, zeren, Durango galetsi beharra baitzegoen. Urtemondo deritzan mendi tontor aldera zihoa-zelarik, horra non ikusten duten bazkan, lasai asko, bakar-bakarrak, hazitarako zezen bat (1). Berehalaxe, goseak zeuden gure mutilek, harrapatzea pensatu zuten biharamonean jateko. Aiako Txikiak eta Pello-Marik eratu zuten harrapaketa. Hautatu zituzten bospasei lagun, baserritarrak denak, alegia, abereekin ohitutako jendea, eta poliki-poliki inguratu zuten. Orduan, zezenarengana hurbilduz, Pello-Marik eutsi zion adarretatik eta beste lagunaren artean sokaz lotu. Haiek txaloak ikusmiran zeuden lagunak! Denak pozik biharamon eguerdian tripa beteko zutelakoan haragiz. Otordu bat txitxiriorik (2) gabe eta latako jakirik gabe! Sukalginek hil zuten zezena eta heldu zen noizpait zorioneko otordua. Kozinariak berentzat txuleta ederrak zerbitzatuta gero, gainerakoei garbantzu artean puxketa bana tokatzeko moduan jarri zieten, mokaru batean jaten zena. Izan ere, chun mutil baino gehiagoren artean zabaldu behar baitzen zezen famatua!

(1) Toro semental.

(2) Garbantzurik.

Pello-Marik, txitxirio saldatan ikusi zuenean berari tokatu zitzaion zatia, eskuz hartu, eta inguruko guziei erakutsiz, honela esan zuen:

—Motellek! Hau al duk guk ehizatu diagun hazitarako zezena? Ez nitek esango, alajaina! Zezena adarretatik heldu ta gero, hauxe duk adarra jotzea! (1).

Nahiz-eta gosea pasa, umore onik ez zitzaien falta gure mutilei. Gizajook txitxirioei esker bizi ziren. Honetatik bazen ugari, gerla hasi aurretik Mexikotik ekarriarik Bilbora Espainia guztirako. Eta, jakina, denak Bilbon gelditu ziren Euskadi autonomorako. Urtebeterako "stock" a ba'omen zen gutxienez.

Jorraileko 26-aren goiza, zezena jan zutenekoa alegia, oso baketsua izan zen, ofentsiba hasi zenetik baketsuenetakoa eta denbora ongi erabili zuten iskil-azkar kabiak egiteko. Soil-soilki, ehizeko "Heinkel" bat Barazartik pasatzen ikusi zuten —Gasteiztik etorki—, Zornotzaruntz joaki (2), eta handikan Gernika aldera jarraitu zuen; ordubete barru, bueltan etorri zen Durango gaineratik Gasteizko aideporturantz. Beste edozein egunetan egazkin mugimendu handiago izaten zen, nahiz gudulerroak txehetzeko edo Bilbo bonbardatzeko. Egazkinen mugimendu hau egunorokoa izan ohi zen. Eguerdiko arrantxu famatua jan zuten, zezenki ta guzti esan beharko, eta laurak eta laurdenak aldera horra non somatzen duten egazkin burrundara izugarria. Baina, berriz ere harriturik gelditu ziren: ez zetozen ez Bilbora, ez eta gudu-lerroetara. Goizekoa bezala, Barazar gaineratik igaro ziren. Dozena bat bonbardaketako "Junker" haundi eta 38 "Heinkel" ehizakoak kontatu zituzten Urtemondotik, bata bestearen atzetik pasatzen hiruko formaziotan, arratsaldean zehar. Ez zen, gero, haur jolasa! Denak txunditurik gelditu ziren.

(1) Adarra jo: tomar el pelo.

(2) Amorebiataruntz joanaz.

Baina, gehiena harritu zituena gure gudariak egazkinen norabidea izan zen. Ez ziren joan, uste zuten bezala, Bilbo edo gudulerroak bonbardatzera. Ez, horixe. Goizeko egazkin bakartiak bezala, Gernikaruntz jo zuten. Arratsaldeko lau t'erdia ziren. Laster entzun zen Gernika gaineko bonbardaketa hotsa eta kea zerurantz igotzen ikusi zuten mordo lodikotetan. "Heinkel 111" bat hasi zen bonbardatzen. Geroxeago beste bat bonbardatzen eta ametrailatzen. Luzaro gabe, "Junkers 52" delakoek ekin zioten bonbardaketari. Hauek amaitutakoan, ehizeko "Heinkel" eskuadrila bat hasi zen karrikak ametrailatzen, ahal zuten jende guzia tirokatuz. Bostak eta laurdenetan beste era-soaldi bati ekin zioten eta bi ordu t'erditan ez ziren gelditu herria bonbardatzen eta ametrailatzen. Egazkin olatualdiak hogei minutuka berritzen ziren. Herri guztia deseginda geratu zen eta San Joan elizak zuzi irazeki bat zirudien beste suteen artean.

Astelehena zen, azoka eguna Gernikan. Zorionez, bai azoka eta bai arratsaldeko pilota partida suspenditu egin ziren bezperan, etsaia gaineen zutela ikusirik. Bestela, bonbardaketako heriotzak askoz gehiago izanen lirakeke. Arratsaldeko zortzirak laurden gutxitan joan zen azkeneko egazkina. Bonbardaketan 50 egazkin ingurutsu ibili ziren. Beren karga husten zuten, Gasteizera itzuli, berrito kargatu eta deskarga berriz ere. Zenbat pertsona hil ziren Gernikan? Euskadiko Jaurlaritzak eman zituèn zifrak hauetxek dira: 1.645 eta 889 zauritu.

Ez dakit geroztik estudio zehatzagorik egin ote den, baina, batzuren iritziz gutxiago izan ziren. Ez luke harritzekorik, zeren lehenengo kalkuluak, gutxi-gora-behera eginak, goitik jotzen baitute beti. Etxe kaltetuak 721 izan ziren eta beroietatik ehuneko 71 zeharo deseginak. Apur-apur eginak gelditu ziren eraikintza publikoen artean hauetxek daude: Udaletxea, San Joan eliza, Pilotalekua eta Institutoa. Bonbardaketan erabili zituzten egazkinak marka hauetakoak ziren: "Heinkel-111" eta "Junker-52" bonbardariak eta "Heinkel-51" ehizeko eta ametrailariak. Olatualdi bakoitzean 15 edo 20 egazkin jarduten ziren "beren lanean". Gerla garai haietan Gernikak 8.000 bizilagun inguru izan bide zituen.

Bonbardaketaren ondoren, ilundu zuelarik, Urtemondotik sute ikaragarri bat ikusten zen Gernika zegoen tokian, zerua suak hartu balu bezala. Beraz, aisa igarri ahal izan zioten "Aitzo-l"eko mutilek eta berekin zeuden sailditakoek, Gernikan ikaragarriren bat agitu (1) zela. Biharamonean jabetu ahal izango ziren "Eguna" eta "Euzkadi" egunkariak irakurriz. Zain-etengarri zen biharamon eguerdiraino kezketan eta jakinguraz egon beharra albisteen zain, baina egon beharra zegoen pentsamendurik beltzenak gogoan erabiliz. Nola nahi ere, sekula, gudate guztian ez zuten hainbeste egazkin elkarren ondoan pasatzen ikusi etengabeko joan-etorrian lauterditatik zortzirak arte. Berak ziren Gasteiztik Gernikarako hegaldien lekuko. Inor bizirik gelditu ote zen Gernikan? Hauxe zen denen gogoan zebilen galdera estu eta larria, axanpa (2) ikaragarria.

Agosti Xaho, joan den mendeko zuberotar irazle famatua, profeta izan zen, zeren igarle hark esan baitzuen: "Hala guztiz ere, gaztelar basajendeak Bizkaian sartu dira. Haritz beneragarria—haren azpian egiten baitzituzten herri-batzarrak hiru mila urtez geroztik—, jo eta moztua izan da. Eusko (3) Arbola egon zen tokian, erdaldunek (4) hizkuntza berrian izkiriatu dute basatien duin den iskribu hau: HEMEN IZAN ZEN GERNIKA" (5).


(1) Gertatu, jazo.

(2) Angustia.

(3) Testuan: iberoa. Denok dakigu iberoak euskalduntzat zeuzkatela askok.

(4) Testuan: Agoteek, hots, arraza txarrekoek, kanpotarrek.

(5) "Viaje a Navarra durante la insurrección de los vascos", Editorial Txertoa, 78 p., 1976.



GERNIKA 50 (N. BASTERRETXELA)

Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak

Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak
Herriaren auzoak

(GERNIKARI 1937-1987)

GERNIKARI 1937-1987

Hegoaren hegala nere bila
 jin balakidat maite izarbela
 Hegaltza nindohakizula
 Azka niro nere habela
 Bainan egoitza dut kartzela
 Arimare maiz goibela
 Hegaztina zohaz berhala
 Harat nihaur benintz bezala

Erraiozu amodioari Gernikari
 Kartzelatik nagola ni oi! maitari
 Sekulakota erraiozu naize' eri
 Zuk erraiozu Gernikari

Isaso zolaraino hel artino
 jinen nitzauzu mundian zireno
 Herioa oi! nitaraino
 Zautalorik jinen oraino
 Azken kantua zuretako
 Zurekilan dantzatzeko
 Kantatuten dauzut betiko
 Zure besoetan hiltzeko

Erraiozu amodioari Gernikari
 Kartzelatik nagola ni oi! maitari
 Jekulakotz erraiozu naizel' eri
 Zuk erraiozu Gernikari




www.berria.com

Izarbel lotzgarria amodioa
Erradazueni zuk othoi! egia
Zer den holako lotkarria
Daguna zureta enia!
Herioaren egarria
Berekilan ekarria
Zu izanki ere zauria
Ta zu zira ene maitia

Erraiozu amodioari Gernikari
Kartzelatik nagola ni oi! maitari
Jekulakotz erraiozu naizel' eri
zuk erraiozu Gernikari

Eñaut Etxamendi



GERNIKA 50 (N. BASTERRETXEA)



ANTONIO GARCÍA DE LA CRUZ

PATXI EZKIAGA LASA

"LOIOLA GUDALOSTEA" SONATA

"LOIOLA GUDALOSTEA" SONATA

I.

Nola ez gogoratu nire aitaren laguna,
gerla-ageriz osaturiko bendajea
hiru urtetan metraila ta polbora
mastekatu zuten burmuineko
zelulatan! Alferrik.

Penizilinak sendatu zizkion
azaleko zauriak, ur oxijenatuak,
iodo-tinturak ta kotoi zuriak.
Gizon berria da...

anka mugitzen du ta begia
Eusko Gudarien doinuaren esentzia
gorderik duen botelaren estalia
askatzen dutenean. Sendaturik dago.
Gizon zaharra da...

galdua zaio gaztaroko
begiradaren islada,
galdua etxeko sukalde ekonomikako
pago adaxkaren txingar horixka
epela, epela, epela.

Gizon akabatua da...
ta lagun mutilatuen egurrezko anketan
ez du loraminik bortxatzen
udaberriko eurite ilusionatuak.
Galtzaile izandako hiru urtetako
hondamendia dario kondekorazio gisa
ahotik ituteka doakion babari.
Sendaturik dago... eta hilik.

Gernikan elkartu dira.
Euskal hilobietako biztanleek
aireatzera zabaldu dituzte larruak.
Irabaz beza, gailendu bedi behingoz
behintzat hildakoen usain gozoa
kosmetika dendetako kirats
miketzaren aurka.

Heriotz-bertsolariak hartu du plaza:

“Nork dio gure herriko historia
aurrerantz egiten dala...
begiratu besterik ez dauka
lagatzen duen uhara.
Eguzkiarantz doan txalupak
pozoindu digu amara;
garaileak jan digu argia
irents dezagun itzala”.

Izerditzen hasiak dira gorpuak
itsas zakarreko uhainak bezala
gora ta behera sabelak.
Ai hildakoen erdikuntza!
Erditzera doaz. Begira, begira!
uniforme ta guzti
soldadutxo jaio dira.
Ezar bitzate bandera oihaletan
gizagaixoak.
Loa, loa, tiro, tiro, pum, pum.
A zein keinu goxoa
Gerlaren keinua.

“Amodioa arrotza zaie
mezazainaren ogian,
gorrotoaren odolak ditu
mozkortu ardandegian.
Historiaren tabernak die
etsipena eman ontzian;
ez nau harritzen hilik sortzea
bizitzako egunsentian”.

Guerreraizko mantiletan inguratu dituzte,
haur-soldadutxoek sudurziloek
Jainkoaren gatzaren ordeztu
polbora hautsa ta etsipena
hausnar dezaten.
Ta nik ezin duta jasan.
Noiz itsiko ote dute
aberriaren gurasoek denda!
Noiz zikirotuko ote
gerla-adarraren zakila
askatasunaren harrian...

III.

Bataio eguna da.
Soldadu ezezagunaren aberriko
elizan dager apaiza,
txiribita zuriak eskutan
“bai-ez, bai-ez, bai-ez” ka
neskatxa zalantzakorrak izorratuz
lora ematzarra izanik txiribita
beti edonoren ferekeapean.

Hondamendi-jainkoak hartu du eliza:

"Amodioa arrotza zaie
mezazainaren ogian,
gorrotoaren odolak ditu
mozkurtu arandegian.
Historiaren tabernak die
etsipena eman ontzian;
ez nau harritzen hilik sortzea
bizitzako egunsentian".

Guerrera zko mantiletan inguratu dituzte,
haur-soldadutxoen sudurziloek
Jainkoaren gatzaren orde z
polbora hautsa ta etsipena
hausnar dezaten.
Ta nik ezin duta jasan.
Noiz itsiko ote dute
aberriaren gurasoek denta!
Noiz zikirotuko ote
gerla-adarraren zakila
askatasunaren harrian...

Patxi Ezkiaga Lasa

BITORIANO GANDIAGA

AEROPLANO GAIZTOAK

Gorrotoak erre zuen Gernika:
Bere nortasuna maite duen
Herri baten kontrako
gorroto zahar, zazpi buruko
herensuge halako

aintzinatik egundainoko
craman txarreko pizti
inperialista eta genozidak.

Gorrotoak erre zuen
berebiziko nortasun
bere gisakoa duen
Herri jator baten
ikur zeritzon Gernika,
Gorrotoak erre, hizkuntza
berebiziko baten
adierazgarri (sic)
zekusan Gernika.

Gorritoak erre zuen Gernika,
erraustu zuen etxe ta pertsona,
bonbek deuseztatu ezin izan zuten
hizkuntza eta euskaltasuna
erasotzen ihardun behar izan zuen
lehen bezala, ihardun behar izan du,
behar du ihardun oraindik,
gorrito zahar zazpi buruko
herensuge halako

bekaizti

aintzinatik egundainoko
luze ta buru askotako
eraman txarreko pizti
inperialista eta genozidak.

Gorri, masoi, atoen
kontrako amorraren,
kontrako bendekuaren,
kontrako sarraskiaren
gainetik

Gernika
euskaldunon askatasun-
—gogo hilezinaren
kontrako amorruez
erre zuen gorrotoak,

erretzen utzi zuen
bonbak eta sua baino
betikoagoa den herra
suminkorraren gar zital
egundainoko errausle
gaizto ta gaizkile
herensuge halako

bekaizti

antzinatik gaurdainoko
luze ta buru askotako
eraman txarreko pizti
inperialista eta genozidak.

AEROPLANO GAIZTOAK

Ni Orbelaungoa naiz. Arrola mendiaren hegoaldean, Arratzuko elizatik 20/25 minututara, Gernikatik 8 bat kilometrotara, han dago Orbelaun basetxearen hondakina. Sortaldera begira, zutik dago etxearen aurrekaldea, atearte eta leihozulo ilunak zabalik, pinu artetik ozta heltzen zaion argirantz. Errenteru bizi ginen han, baina gusto gozoz oroitzēn naiz Orbelaunez. Bista handi eta ederra genuen handik: Iluntzargaina, Gastiburu, Oiz, Bizkargi, Mendata, Morga, Errigoiti eta haien ostan jaso eta jaisten diren mendibizkar eta gailur lekutako eta urdinak.

Laborantza-etxe inguru zabal eta argikoa Orbelaun; ira eta beste inaurki, eta ardien eta behien larre-lekuz mendiamalda galantak betean. Etxebakar ondo-bazter batekoa, Iluntzarko Plontño, Julian Arrolako, Paskual eta Tiadoro Ertzilgo, aitita Larros-tako, tratulari bakarren bat eta eskekoren batez kanpo, jende gutxi inguratzen zitzaionetakoa.

Hau denau esan behar nuen, kontatzera noan nire Gerni-karen erreketari buruzko bizikizunen akordu-hondarrak bere leku eta giroan ezartzeko. Esan gabe doa, nonahiko zarata txarra besterik ez dabilenean, bakardadeak duen beldur, susmo-txar eta intsegurtasun airea.

* * *

Aitak eta amak, bati eta bestri entzundako gerrari buruzko autuak sarri erabili ohi zituzten. Zuriak aurrera zetoze; fatxistak eta moruak gero eta gertuago genituela eta holakoak. Dimeka eta astelehen bakoitzeko, gero eta barri larriagoak jasotzen zituzten: Durangaldea goitik apurtu zutela suzko bonba eta inork eutsi ezin ahalako erasoz; gudari-jendea kamioiak betean zetorrela atzerazka eta beste. Arratzurretako errokatik etxera-koan, ni neu ere, frentean erabili izan omen zuten-dozenerdi idi pare, hankak eta apatx-arteak-eta odoletan zituela ikusita nengoen. Han zeuden haiek Arratzuko kanposantu aurreko haritzen babespean. Han ikusi nuen ihesi zetorren kamioikada soldadua ere. Dena bertan behera zetorren egun larri haietan hartu zuen gure aitak soldadutzarako dei duntsua. Etxe alde airosoa utzi behar zuen gizarajoak: erdi makalik zebilkion andrea eta lau umekondo, ni neu zaharrena nintzelarik.

Zortzi urte-nituen Gernika bonbaz eraso zutenean, metralaz eta suz Gernika triskatu eta erre zutenean. Astelehen goiz hartan ez zen, ama ez zen bere bendejatxu eta bere astotxoaz Gernikara joan. Astelehen hartako arratsaldean aita ez zen, *eria* aitzakiaz, Gernikara joan. Apirilaren 26 hartako gaua baino lehen, aitak Mendatako herrikoetxean behar zuen agertu gudari-tarako. Bazkaldu orduko uztartu zituen Apala eta Moro, eta Ziarsolo lantzerara joan zitzaigun aita. Ez ninduen, ohi zuenez, itaurrean egitera eraman. Behiekin, bakarrik joan zen aita, eta ama, umeokin, bakarrik geratu zen etxean. Nik garbi ikusten ez nuen zerbaiten geriza iluna bazebilen gurean. Amak, noizbehinka, etxatzerara osteratzen egiten zuen eta handik Orora aldera begiratzen zuen ea soldaduekin kamioirik pasatzen ikusten ote zuen. Kanpogane aldera ere begiratzen zuen. Gero ezkaratzerara sartzen zen. Gora bueltak eta kuartutik kuarturako ibilaldiak ere zituen, zoruko haritz-ohol zaharrak kirrinkatu araziz.

Arratsalde hartan sargori-edo egiten ote zuen sentsazioa dut. Konkretuki zertan aritu nintzenik ez nizuke esango. Zerbaitetan ekingo nion ordea, gurean ez bait zen alferkerian egotetik ezagutzen. Bazkalondo hartakoak ordu isil eta luzeak izan zirelakoan era banago. Zergatik baina ez ote ninduen eraman aitak itaurrean egitera? Zergatik ez zidan amak hau edo bestea egiteko agindurik ematen? Ez zen gure ama gelditi egoten eta geure aidera ibiltzen utziko zigutenetakoa, Baina bazkalondo hartan ez zeukan seguruenik nitaz arduratzeko astirik. Susmo onekoa ez zen zerbait abiatzen zuen edo ardura lakarren batek zerabilen.

Nire ondorengo anaia Josez ez naiz oroitzen. Eskolan ote zen? Gure Jose ni baino sarriagotan joan zen eskolara garai hartan. Nik ez nuen mutilentzako maistrarik ezagutu. Harek bai. Maria Nabarnizko izekoarenean zegoen. Ni, zaharrena nintzenez, etxean behar ninduten hartan-hortan laguntzeko eta, batez ere umeak zaintzeko. Egun hartako akorduetan ez daukat anai-arreben gomuta izpirik ere. Etxebuertako gerezi, madari eta sagarrondoak lorea ondo pasatuta ote zeuden nago, eta etxaurreko haritzak dena orri berri eta zintzilikariotxo.


Amak, etxatzerara egin zuen osteretako baten ondoren, atartetik irteteko agindu zidan. Ez zetorren bere onean, izuturik zetorren, larri eta zurbil. Aiene eta holakotan. Etxaurreko hariz-tian genuen oilategira eraman ninduen eta han oilategi barruan, amantala kendu, lurrera bota eta belauniko eta eskuak gurutzean zituela errosarioa erreztatzeari eman zion. Nik ez nuen ezer konprenitzen, arik eta aeroplanoen zarata tankarra hurra-hurra abiatu nuen arte. Erreztatzeari utzi eta aeroplanoak ikustera irtetzen nintzen ni oilategitik. Amak, ez irtetzeko eta ez irtetzeko. Jainkoarren ez irtetzeko. Oso hurbildik ikusi nituen mari-orratzen antzerako hegomoduak zituzten abioiak. Kanpogane aldetik agertzen ziren: Goikoganera baino lehen, ia geure etxeparean bueltatzen ziren eta ez zerabilten itxura onik. Tiro hots handia zerabilten. Ametralladoren takarrada Markinatik Gernikarako errepide gainean zehar, bonba bunbak ere bai han eta harutzago bide beraren harian, eta urrunago, harri zaparrada

hala, dena-baterako bonba eta tiro zarrasta. Guretik ez da ageri Gernika, Burgoak izkutatzen du, baina haren ostean zen iskanbilarik nabarmenena.

Ez zen behingoan amaitu erauntsia. Berandu baten agertu zitzaigun aita isilik eta zerbait ikaragarrik eraginda. Behiak askatu eta kortaratu zituen. Berba urri batzu besterik ez nituen entzun aita-amen artean. Baju hitzegiten zuten, agonian dagoen norbait maiteren aldamenean baleudetsu. Baietz, abioiak bere burugainetik eta behe-behetik pasatzen ikusi zituela, Markinatik Gernikarako bidea tirokatu zutela, Gernikan triskamena izan zela antza; Kanpoganen jendea, seguruenik soldaduak, zuriak dudarik gabe, bandera eta guzti agertzen ikusi zituela, eta hola-ko. Iluntze aurre-aurretuan bialdu bide ninduten ohera. Ez dut oroitzen ohizko barbarorik ezkaratzean. Aeroplanoen tiro-hots eten gabeen, bonben buntzadaren upielakoen durundi ikaragarri handi eta luzarokoaren zirrarak sorgorturik, etzan bide nintzen lastamarrean. Ez naiz ia oroitzen. Haizeak Orbelauneraino ekarri zituen paper eta tela eta holakoen erre-hondakinak.

GOTZON GARATE GERNIKAKO BURGAREN BONDARETA

GERNIKAKO BURGAREN BONDARETA



GERNIKA 50 (N. BASTERRETXEA)